

# Lau heriotzentzat kantak

Xosé Sesto  
Juan San Martín  
Edorta Jiménez

# Gomutazko arkupea

Felipe Senén

*Os milleiros de horas, de séculos  
que fixeron falla  
pra facer un home!  
Tiñan que encher aínda  
as cunetas  
con sangue de mestres de obreiros  
Lama, sangue e bágoas nos sulcos  
son sementes”.*

(Luis Pimentel)

Goiko bertsoak, laurogeita hamarreko hamarraldian Bóvedari egin zitzaion omenaldian argitaraturiko halako panfleto baten hasierako testua badira ere, gaur eta hemen aipagai dugun gaiari egoki-egokiro datozkion bertsoak dira. Harako hartan testua ixteko erabili ziren bertsoak, berriz, egun ere bihotza urratzen diguten Celso Emilio besteok dira:

*O día xa está pronto, alma que agardas,  
faite bandeira, berra o teu direito  
a ser estrela cando os tempos cheguen  
cando as gaitas triunfás soen nas rúas  
cando a irmandá, cando a ateigada artesa  
cando os homes da terra señan rio  
de libértá, un gran cachón no meio,  
cando todos os nenos de Galicia  
seipan porqué mataron a Alexandre...”*

Castelaori kuttun zitzaion Pontevedra huraxe bizi izan zuen Xose Sesto Lópezek bihotz-muinean; alegia, *Polifónica*<sup>1</sup> harena, *Sociedade*

<sup>1</sup> *Coral Polifónica de Pontevedra* delakoan batera izan ziren Alexandre Bóveda eta Xosé Sestoren aita, eta biak ziren hiriko Ogasuneko funtzionarioak. Xosé eta haren anaia Manuelek Blando Portok zuzentzen zuen Polifonikoan abestu zuten. Oharrok testua gaztelarera itzuli dituenarenak dira, Manuel Sestori berari Caracasen entzunak.

*Arqueoloxica*rena, *Museo*<sup>2</sup> delakoaren jaiotzaren lekuko izan zena... Pontevedrari Losada Diéguez, Aberriaren maitasunaren maitasunez, Sokrates zitzaion. Harik eta 36ko abuztuaren 17ko goizaz asunak baratzaren jabe egin ziren arte. Hartan Alexandre Bóveda Komunen Kartzelatik aterata eta kamiotoxo batean sartuta A Caeira<sup>3</sup> delakora eraman zuten arte, hantxe gurutza zezaten eraman ere. Kalbarioko orduak historian duten pisua gero!

*Vida paixão e morte de Alexandre Bóveda*<sup>4</sup> izenekoaren sarreran Sestok idatzi zuena eta bestek gero nahitu nahastu zutena Sestok berak zuzendu zuen, *Fede emate zital baten fede ematea* testuaren bidez hain zuzen, esanez bestek “eraldatzaille” idatzi zuten tokian “iraultzaile” hitza ipintzea zegokiola, sekula ez baita martiriaren irudia ameslariaren irudiarekin nahastu behar. “*Iraultzailea iraultzaren barruan da iraultzaile, eta helburua erdietsi ostean ere iraultzaile izaten segitzea da iraultzailea izatea, erdietsitako hori ez baita inoiz azkenekotzat jo behar... iraultzaile izateari eta marxista izateari berdin-berdinak irizteak, edota ‘iraultza’ eta marxismoa berdin-berdintzat jotzeak –eta berdin-berdinak balira ere, zer?- ezer erakusten badu zera erakusten du, erredimitu gabeko sustrai-sustraiako kultura eza, koldarkeria txepela eta inongo konponbiderik gabeko ergelkeria, horixe erakusten du. Horretan dagoenak, nolana ere, ideiak ez ditu garbi, eta ez die ideioi federik... Eta holaxe defenditzen du Alexandre Bóvedak Fronte Popularraren alde jendaurrean argiro lan egin izana, nahiz eta haren baitan marxista zirenak zein marxista ez zirenak bildu. “*Alexandre Bóvedak hain gogoko zuen lauburuan bertan zegoen laburbildurik bere pentsaera: galegoa, izena gure hizkuntzan zeukalako; kristau, haren buru egiten duen gurutzeagatik; iraultzailea, hura burutzen duen bost adarreko izarragatik*”. Bada, errepikatu berri duguna Sestoren diskurtsoan behin eta berriro ageri den gaia da.*

Berrogeita hamabost urte zituela Pontevedra jaioterrria utzita, 1955ean beraz, Venezuelara abiatu zen, *Santa Maria*<sup>5</sup> ontziaren bikia zen *Serpa Pinto*

2 Aipatu museoa *Museo de Pontevedra* da, Castelaoren lan ugarien dituen berori da eta (gaztelareri buruzko itzultzailearen oharra, aurrerantzean G.I.O.)

3 *A Caeira*, Pontevedra inguruko basoa, 1936an faxisten tropek, legez eta zuzenbidez mozturoriturik, hainbati eta hainbati heriotza emateko erabili zutena. (G.I.O.)

4 Xerardo Álvarez Gallegoren izkribua, lehenengoz Argentinan *Nós* argialetxean argitaratua. (G.I.O.)

5 *Santa Maria* izeneko dugu Humanitatearen historia guztian helburu politikoengatik bahituriko lehenengo ontzia. Bahiketa 1961ean izan zen. Bahitzaileak komando portugaldar, espainiar eta galiziarrek izan ziren, guztien buru zirelarik galiziar komandante Soutomaior eta Xosé Velo eta portugaldar komandante Henrique Galvão, hain zuzen ere Directorio Ibérico de Liberación (DRIL) delakoaren kideak. Ontziari ekitearen helburua Iberiar Penintsulan orduan ziren diktadurak munduaren aurrean salatzea izan zen. Afrikar koloniak armaz matxina zitezten omen zen haien asmoa (G.I.O.)

izenekoan, Ameriketako diasporan ihardunean jarraitzea hain zuzen. Hura, hola edo nola, Sestorena ihesa zen; hildako mordoaren gomutak zeramatzen lepoan hartuta. Esaterako, abuztuaren 17an A Caeira hartan Alexandre Bóveda fusilatu zutenekoa. Sestori berari azkenekoz hitz egin ostean izan zen<sup>6</sup>, ziegetan, eta hartantxe eman zion hark bere hurkoentzako azken agurra zekarren gutuna: “*lasai, Sestotxu, minutu biren buruan jainkoaren altzoan izango nauk eta*”<sup>7</sup>... Nondik nora suertatu zitzaion han egotea, ordu hartan heriotzaren zulo hartan bisitari, askotan egin genion galdera da. Sestok berak mirari irizten zion. Abertzalearen azken bizi-uneen gomuta guri igaroarazteko eta guztion oroimenean lekukotasuna uzteko, gorpua beztitzeko eta bularrean Galiziako banderatxoa ipintzeko<sup>8</sup> eta hilobian sinadura xumea jartzeko, eta horren gainean egungo bost adarreko izarraren aurrekaria den jazarrien Elizaren Gurutzeta ere jarri ziezaioten, horrexetarako egon omen zen han.

Ameriketara abiatu giblean utzi behar izan zuen bihotzeko kuttuna, bere lehenengo eta azkeneko maitea<sup>9</sup>, Chariño Novás, Pontevedrako, maistra. Vigon ezagutu zuten elkar eta halaxe ezkondu ziren, udaberria iragarri “txoriñoak ezkondu ohi diren egunean”, hots, 1938ko Kandelari egunean. Senar-emazteen lau seme-alaba, artean txikiak (Farruco, Nacho, Miriam, Xaime) Chariñorekin geratu ziren. Gero bizitzak eurentzat gorderik zer zeukan ere, amak behintzat etika eta estetikaren maitasunean hezi zituen. Sesto, oster, promesa zen. Diputación de Pontevedra erakundearen bekaduna haren presidente De La Sota zegoelarik, horrez gainera *Faro de Vigo* eta beste zenbait agerkaritan ilustratzaile ibili zen, Laxeiro eta Colmeiro lagunekin. Horrela, 1948an *Libro de Santiago* izeneko liburua irudiz hornitzeko saria irabazia zuen. Testua, berriz, Filgueira Valverde beti lagun izan zuen eta beti-beti kultuaren arloko zerbait –musikan, artean,... Valle Inclán ezagutu zuen- mugitzen zen lekuetan ibili ohi zen harekek sortu zuen. Eta emigratuen patua ere ezagutu zuen: La Guaira estatua<sup>10</sup> Puente de Hierron, Alcabalan... “*Bizitzan guztiok ditugu gure nobelak, kontua kontatzera pausatzea da...*”, holaxe esaten zuen Sestok, behin eta berriro.

6 “...*derradeira vez...*” dio jatorrizko galiziar testuak. Hala bada, gogoan izan galegoz *azkena* esateko *derradeira* eta *última* erabili ohi direla baina, lehenengoak euskarazko behin-betikoaren parekidea litzatekeela, alegia, azkena, bai, eta berriz inoiz ezin egin izango dena. Halaxe diogu a *derradeira cea*, azken afaria, horren ostean ez baita beste afaririk izango. Felipe Senének zuhurtziaz dio *derradeira* hori, Bóvedari dagokionez halaxe izan baitzen afari hura: behin eta betikoa (G.I.O.)

7 Jatorrizkoan galegoz, noski. (G.I.O.)

8 Denbora baten buruan Xosé Sestoren emazte bihurtuko zen Charo Novásek brodatua (G.I.O.)

9 Honetan ere lehenago *derradeiro* hitzak esan duguna gogoan hartu. (G.I.O.)

10 Denboraldi batez Sesto non-eta Xosé Veloren etxean bizi izan zen, alegia, Caracaseko La Pastora auzunean, haren semeetako batekin, Veloren beraren alargunak, Jovitak, Caracasen bertan azaldu zidanarekin bat. (G.I.O.)

“Ostatu honetan behin, samindurik eta balio gutxiko besaulkian jesarrita, hara non aurkitu nuen Coral de Perfecto Feixoo abesbatzaren domina galdua; hartan aitak, anaiek, Bóvedak, Castelaok eta bestek abestu zuten.. eta nik neuk, ume gorria nintzen arren.”<sup>11</sup> “Mundua mukizapia da –esan ohi zuen, zera gehituz- mukiz beteá”. Hortxe dago gomuten zama, eta horixe gara.

Haren ironia buru argidunaren erretrankaz<sup>12</sup> josia zen, eta isilunez tartekatua. Emakumea, errefracuintza eta emakume galiziarren hiztegia egiteko asmoa ziren haren kaian atrakaturik zetzan ontziak gordetzen zituen proiektuetako batzuk. Bera esan ohi zuen moduan, “hamaika ofiziotan dabil Adan, eta ez du ateratzen zer jan”. Arte-ikasle Madrilen, *Deputación de Pontevedra* delakoaren bekaduna, abokatua, esmaltegilea, birgaitzailea, koadernatzailea, azken horretan Kennedyk eta Galeseko printzeak lanak agindu zizkieten. Venezuelaren Independentziaren Agiria berregin zuen, eta harrez gero Escuela de Artes y Oficios de San Juan ikastetxean eskolak ematen ditu, lehenik, eta *Cristobal Rojas* delakoan hurrengo. Eta munduan beste askok bezala paradisu galduen bila abiatu ostean ametsen galeragatik zapuzturik, horretara iritsi baino lehen Caracaseko *Lar Gallego* elkartean sartu zen eta hiriko Ateneon erakusketa paratu zuen, besteak beste. Behin horretara iritsita Chariño eta familia haraxe etortzeko eskatu eta, horiekin batera Las Acacias izenekoan *Instituto Galaxia* eskola sortu zuen. Horren ateak 1975an itxi ziren, urte horretan Herioa sartu etxean eta emaztea eraman baitzion. Dena gainbehera zetorrela zirudien, eta halaxe idatzi zuen *O pranto a Chariño*, Vigoko Artes graficas Galicia etxeak 1975ean argitaratua. Gainbehera eta etsipena nagusi:

“As mans  
Pra que quero eu as mans  
E que facer con elas  
E que choio  
Decídesme pintar  
Escribir  
Pintar que...

11 Sesto dioen abesbatza *Coral Aires Galegos* da, hots, *Coral Polifónica de Pontevedra* haren aurrekaria. (G.I.O.)

12 Galegoz erretranka deritzo aspaldiko garaietatik hona erabili izan den ironia zorrotzari, hori, egun, eta globalizazioaren ondorioz *rara avis* da baina galiziar gazteriaren baitan (G.I.O.)

*Andar  
Andar a onde  
Pra que  
Cales son os vieiros  
Que me leven a ti  
Chariño..."*

Sesto kristaua zen, muin-muinekoa. Merkatariak tenplutik eragotzi zituen Kristorengan zuen fedea, hots, gurutzatuan. Esperantza sinisten zuen, eta berak zabaldu zizkidan Ernesto Cardenalen lanaren atea. Gero Cardenal pertsonan ezagutu nuen eta, bide batez, Sestok poetak Marilyn Monroeri -gogoratu, ohean biluzirik, telefona eskuan eta soinean kontsumo-usain atsegina, halaxe hil zenari- eskaini zion olerkia ozen esatea gogoko izaten zuen:

*Señor:*

*quienquiera que haya sido el que ella iba a llamar*

*y no llamó (y tal vez no era nadie*

*o era Alguien cuyo número no está en el Directorio de Los Angeles)*

*¡contesta Tú el teléfono!*

Ezagutu, Xosé Sesto, 1979an ezagutu nuen, urte hartan *Irmandade Galega de Caracas*<sup>13</sup> delakoak bertara gonbidatu baininduen, gonbidapenarekin zerikusi handia izan zuelarik egun Cambren liburu-dendari dagoen eta artean aipatu dudan erakundeko kultur suspertzailea zen Victor García. Urte haietan Caracaseko galiziar erakunde horrek loraldia bizi izan zuen, agintean *Plancha 1 A Galaica*<sup>14</sup> zeukalarik. Ekitaldi aurrerazaleak egin ziren, historiadun izenekin egin ere, hala nola Noya eta Eduardo Meilánekin. Beste asko ere izan ziren eta, guztiekin nago esker oneko. *Día das Letras Galegas* egun seinalatuan hitzaldia emateko deitu zidaten, jarduna nori-eta itsasoko poeta rianxotar Manuel Antonio Más Alá agiriaren sortzaileari. Nire gaia zera izan zen, *Galiziar artegintza herriak bere burua berresteko bide:*

13 Hedaduraz *Irmandade Galega de Venezuela*, 1960ko urriaren 12an sortua. (G.I.O.)

14 Beste erakunde historikoa honakoa da: *Plancha 2 Grupo Unión*, egun, 2008an, Irmandade Galega de Venezuelako zuzendaritzan. (G.I.O.)

*itxuren eta bitartekoen, jendeen eta lekuen artean promenaldia*. Aipatu guzti horren alde Sestok eta biok eskuz esku jardun genuen eta, biharamunean bertako hedabideetan horixe nabarmendu zuten. Modernismoaren urteetako estetika galegista gogorarazi nuen, urteotan Valle Inclánek esperpentoak eta Galiziar buruzko irudi jakin bat sortu baitzituen. Gogokoago izan nuen Castelao, ostera, hark esan zuena gogoratuz, alegia, zailena zera zela, “*Loriaren Ataria harginen antzeaz eraikitzea*”, eta, horrez gainera, Galiziak baduela bere hizkuntza, badituela bere erak, baduela Otero Pedrayok harrotasunez aipatu ohi zuen *Nós*<sup>15</sup> plural eta maiestatiko hori... itsasoko edota baserriko galiziar langilea barregarri egiteko dagoen joera ez dela besterik sustrai politikoak dituen anomia baten ondorioa baino, deuseztatuz doazelako herria, kultura, historia eta etxea bera ere... Izan zen nire hitzaldia atsegin egin ez zitzaionik. Sesto neure alde agertu zen. Celso Emilio Ferreiro ekarri nuen gogora, eta idazleari Sestok egin ziola akuiluarena *Harrizko gau luzeko* urteetan Venezuelara joan zedin<sup>16</sup> handik denbora tarte labur batean ametsak balduta itzultzeko<sup>17</sup>. Harako 1957an Venezuelara egin zuen beste bat Mario Granell<sup>18</sup> dugu, artisten familiakoa, eta hantxe ziren Silvio Santiago García<sup>19</sup> idazlea, *Lar Gallego*<sup>20</sup> *Centro Gallego*<sup>21</sup> eta *Casa Galicia*<sup>22</sup> haien sortzaileetakoa, eta hantxe, 1948az geroztik, Xosé Velo Mosquera ekintzaile ernea, 1961ean, eta Iberia zaharreko diktadurak ataka gaiztoan jartzearren, *Santa Maria* ontziaren bahiketa asmatu zuena bera. Hitzaldia eman ostean Madrilen lehengusua barik anaia dudan Paulino Núñezekin

15 *Geu*

16 Francoren diktaduraldiari poetak eman zion izena: *Harrizko gau luzea*.

17 Celso Emiliok zazpi urte eman zituen Venezuelen. Egileak aipatu dituen amets zapuztuak Celso Emilio Ferreiro poetak galego emigratuei buruzkoan zituen ametsak dira; komunitate huraxe bide zen gure aberri zapalduak gerora begira zeukan esentzien, kulturaren, askatasunaren eta aurrerabidearen berma. (G.I.O.)

18 Mario Granell, artista bakana eta imitatu ezina. Militante del POUM alderdiko ekintzailea, faxisten kartzetan eman zituen 1936-1940 urteetako tarte. Dokumentu egokiak eskuratu ezinik ez zuen alde egiterik eduki, harik eta 1957an Marcos Pérez Jiménezen diktaduraldiko faraoi-lanek europarrei Venezuelarako atek zabaldu zizkioten arte. (G.I.O.)

19 Anarkista Vilardevós (Ourense) herria jaioa, anarkismoaren adar moderatukoa, hots, *pestanismo* deritzen jarraitzailea. Guda Zibila Galizian zertan izan zen azalduz idatzi den liburu hoberearen egilea: *O silencio redimido*. Galiziar 1958an itzulia, galegisten giro jakin batzuetatik eragotzia eta oker ulertua –uler bedi *Galaxian*- A Coruña hil zen, hirurogeitako hamarraldiaren hastapenetan. (G.I.O.)

20 1945ean sortua, hots, *Centré Catalá* baino lehen eta *Caracas'ko Euskal Etxea* baino geroago, alegia. Hirurak ere hirurak erbesteratuek sortuak, 1945 eta 1948 urteen artean agintean izan zen gobernu errepublikazaleari esker. (G.I.O.)

21 Silvio Santiago, Mosqueira Manso eta bestek gauzatu zuten zatiketaren ondorioa. Agintaritzan Antonio Somoza zegoen. Galiziarrek Venezuelan utzi duten kultura-ondarearen ordezkari goren, gaurdaino. (G.I.O.)

22 Berau ere Silvio Santiagok sortua, 1958an. Bada, 1960an hiru galiziar etxeek egun ere bizirik den *Irmandade Galega de Caracas* sortu zuten. (G.I.O.)

batera lehorreratu berritan hango Ateneon hitzaldia egin nuen, bertako *Aula de Galego* delakoaren suspertzaileak ziren Celso Emilio Ferreiro eta beroen laguntzaile Isaac Alonso Estravísek gonbidatuta, 79ko maiatzean. Egokiera Sestoz eta hemengo eta besteko aingeruez eta deabruetz hitz egiteko baliatu genuen, horretara hobetu endelegatuz bizitzea egokitu zitzaizkigun lekuak eta denborak.

Xosé Sestorekiko adiskidetasuna sendotu egin zen, eta etxekotu. Hil arterakoan, 1998an hain zuzen, ez zion Coruñara etortzeari inoiz utzi. Areago, 1982az geroztik *Amigos dos Museos de Galicia* taldea sendotzen lagundu zigun, geurekin batera ibili zen Italian, Grezian, Britainian, Iranen... Portugalen, eta igandero-igandero Galizian barna urteko lau sasoiengaroko behatzera. Istorioak kontatzen ditu, partehartzaileen artean marrazkiak banatzen ditu, hitzaldiak ematera gonbidatzen gaitu, besteak beste, ni neu, Xocas, Laxeiro, Prego, Santos Junior, Antonio Fraguas, Filgueira Valverde... hizketan eta bidaietan hor goaz Naya, Chamoso zein Manuel María zaharragoekin, edota gazteagoak diren Lois Diéguez, Fernán Vello, Manolo Rivas, Manuel Lombao, Begoña Bas, Pérez Portorekin. Beraz, gizona gurekin egon zedin, eta haren gaitasunek non frogatu eta erakutsi ukan zezaten, miniaturista eta ilustratzailea zen hari gonbita egin genion *Castelo de San Antonioko* hormetako zurezko multzoetan lan egin zezan: lanetako batean leku hori kartzela izan zela gogorarazten du; beste batean gotorlekuari izena eman dion eta animalien patroia den Santo Antón haren loria ageri da, *santutxoak* galegoen artean duen debozioaren lekuko. Andra Mariari bere bihotzeko kuttun Chariñoren aurpegia eman zion, eta San Antoni, berriz, bere buruarena. Barretan egin genuen horrekin eta holako beste erabakiekin, barretan. Sesto Coruña eta Caracasen arteko joan-etorrietan bizi zen, noizean behin Pontevedra, Vigo, Santiago, O Rosla edota Campolameiro herrietara joz, horietan etxekoak edo bestela aspaldiko lagunak zituela eta. Hizketakide izaten zuen askotan Filgueira, beronek egin zuelarik *Medalla Castelao*<sup>23</sup> eman ziezaioten egin beharrekoa, gero jasotzera joatea ezinezko gertatu bazitzaion ere. Lehenik, neu joan nendin nahi izan zuen eta, nahi izan ez nuenez, azkenean bere lagun *O vello dos contos* haren alaba Lolita Mosquera joan zen. Caracasen Florinda D'Acosta<sup>24</sup> artistaren esmalte-eskola hobetzen jardun zuelarik, itzuleran beti ekarri ohi zigun hango opariren bat; berak emandako eskoletako laginak, hain zuzen. Berak egin zuen, baita ere,

23 Xunta de Galiza erakundeak ematen duen gorengo domina.

24 Caracasen bizi zen brasildar urregina, Xosé Sesto irakasle izan zuen. (G.I.O.)



lehenago aipatu dugun Soutomaior komandantearen *Yo robé el Santamaria* liburuaren hitzaurrea<sup>25</sup>, alferreko ezer ez duena. Horretan 1961ko *Operación Dulcinea*, munduari Iberiako diktadura “ahaztuez” gogorarazteko ekintzaren nondik norakoa azaldu zuen. Iraganean bizi izanikoaren minak gainez egiten zion eta, min hori erretrankaz eta hitz eginez gainditu nahi izaten zuen. Tarteka idatzi eta tarteka irudiak sortzen zituen, bigarren horretan erraztasun harrigarri, urteek emandako eskarmentuaren ondorioz. Soslaiak maite zituen, jantzien apaindurak... oihal estanpatuak zein axuleiuk sortzen ona izan zitekeela esaten nion eta berak erantzun, “*vainas que xa me din moitos!*”<sup>26</sup>. oharrak idatziz, erretratuak bilduz, emakume galiziarren gaineko datuak jasoz, halakoxeetan ematen zuen denbora.

Sestok bertso saminduak utzi zizkigun, *Pranto a Chariño* eresi haren oihartzuna dakartenak, izatez beste hori bada ere letren antologian geratu dena... Argitaratzeko asmotan genbiltzalarik Diaz Pardori egin genion bisita, O Castro herrian. Haatik, baztertuz eta baztertuz, beste lehentasun batzuk nagusitu zitzaizkion. Azkenik, emigrazioaren munduaren ezaugarrien eta pisuaren berri hain ondo dakien Xurxo Martínez Crespori esker, hona hemen argitaraturik hurrengo datozen orrialdeetan. Itxaropenaren adarra, hiru zuhaitzeko adarra da; ereinotzarena, haritzarena, olibondoarena. Adar hori, asaba zaharren Lurrezko, Harritzko eta Urezko arbolaren oinetan datza, gure basoaren zati, ekaitzen sasien azpitik eta izurrien laionen gainetik, hain zuzen.

Eguberriaren atari zetorren 1998ko udazkeneko egun batez, gogoan nuelarik berak sortu ohi zituen irudiei ezarri izaten zien *Bakea eta ontasuna* frantziskotar mezu xumea, telefonoz hots egin nion A Coruñaetik Caracasera. Ez zen erantzunik izan eta, egun batzuen buruan jakin nuen zergatia. Sesto eta biokin behin baino gehiagotan hizketan izaten zen haren lagun Laxeirok esan ohi zuen moduan, gure hesietako sarraila zabaltzen duen giltza hartu zuen, munduaz harago igarotzeko. Berria haren seme Nachok eta emazte Guillermina Fernández Mandado margolariak eman zidaten. Hesiaz alde honetan hementxe ditugu guk, adiskideok, haren marrazkiak, esmalteak, azabatxeak, olerkiak... harexen opariak, urrundik eta gomutez jantzita datorren irri argiaz eginak.

---

25 Lehenengoz Caracasen argitaratua, estatuaren Monte Abila argitaletxean. Bigarren edizioa bidean dator, horretan Soutomaior beraren testu orain arte argitaratu gabeko batekin. *Abrente editora* etxeak argitaratu beha du, horren ardura Xurxo Martínez Crespok duelarik.

26 *Vainas*. Venezuelako gazteleran gaiak, kontuak, gorabeherak (G.I.O.)


Sestok, berak jakin barik bada ere, hain gogoko zitzaion Ernesto Cardenalen *Canto Cósmico* delakoan –*Divina Comedia* postmodernoa den horrexetan- dioena errepikatzen du, alegia, mentura guztien artean menturarik menturazkoena guztion mentura den bizitza dugu: zorioneko gu, zelula kosmiko izan, jaio, bizi eta hori dena nola kontatu izan dugulako.

Hona hemen, bada, haren ondorea, zertan lan egin ematen digun gai zaharra: *Cantigas para catro mortes*, Galuescako hiru hizkuntzetan. Hortxe dira Alexandre Bóveda (1903-1936), Lluís Companys (1882-1940), Gernika, nazioaren arbola, Federico García Lorca (1898-1936), Bóvedari heriotza eman ziotenaren hurrengo gauean eraila, poesiaren aberri unibertsala... Geroaren hazi, Castelaok bere azken mihisean irudikatu eta esan zuen moduan: *A derradeira lección do mestre*. Horixe dukegu guk gure *Gernika*, eta berorrek egin behar izango luke gure Legebiltzarrean guztion buru, horretara erdiesteko harako hartan esaten dena: “*ni dar a esquecemento da inxuria o rudo encono*”<sup>27</sup>.



Bizitzaz eta heriotzaz diharduten olerkiak, Sestok gogoko eta maiteko zituen musikez jantzi daitezkeenak. Bere unerik barnekoietarako Sestok Pachelbelen *Canon* delakoa gordetzen zuen. Liburua edertzeko, hari bere ordu galduetan egin arazi genion eta orain neure eskuetan dagoen gantzurako alfabetoa erabili dugu. Alfabetoa sortzeko unean gogoan izan zituen hain jakintsuak eta itxaropentsuak diren harako hitz haiek: “*Hasieran bazen Hitza, eta Hitza haragi egin zen gure artean bizitzeko...*”

27 Galiziar ereserkia den *Os pinos*, Eduardo Pondalen olerkiko ahapaldia (G.I.O.)





PRO IUSTITIA AGONIZARO PRO ANIMA TUA  
ET USQUE AD MORTEM CERTA PRO IUSTITIA;  
ET DEUS EXPUGNABIT PRO TE INIMICOS TUOS


ECCLESIASTICUS, IV, 33


*Loita pola xustiza anque teñas que sufrir as agonías da morte, e perder nela a vida, e Deus loitará por ti contra dos teus inimigos.*

*Lucha por la justicia aunque tengas que sufrir las agonías de la muerte y pierdas en ello la vida, y Dios luchará por ti contra tus enemigos.*

*Zuzentasunaren alde borroka egin ezazu hil zorian sufrirituz bertan bizia galdu behar badazu ere, eta zure orde z Jainkoa borrakatuko da zure etsaien aurka.*


*Lluita per la justicia encara que hagas de patir les agonies de la mort i perdre en la lluita la vida, i Déu lluitará per tu contra els teus enemics.*





Bizitzaren berunez  
heriotzaren berunez  
zekien  
eta itxaropen sendoa  
galdu gabe  
beti irribarrez  
anaia baino gehiago zen  
nere lagun  
Darío Álvarez Blázquez  
oroituz

Alexandre




# Bóveda

## Alexandre Bóveda

Begiak ispilu  
Pontevedra beretan neskatxa maitemindua  
azken agurraren auhenez  
aberi hiletaz ari  
Caeira-ko Alba gain hartan  
Alexander zutik dago  
Pinu pondaliar baten gurutz aurrean  
laukia ez da  
museo batean eskegitzeko  
hitzaldi ofizialez eta galego himnoz  
edozein momentutan  
hazaro soila besterik ez da  
gero izango da  
ikaragarritzko dunbots alaia  
milakak eta milakak eta milakak  
igitai biziena  
garaitze emankorren  
ebate kanturako



# Lluís Com




# panyys

## Lluís Companys

Oinutsik lurraen gainean  
edo lurraren barruan zuhaitz bat bezala  
zuhaitz bat bere sustraiekin  
goian zerua  
eta xoriak eta habiak eta frutuak  
zuhaitza beti zuhaitz  
amaren lurra bizitza denez  
eta heriotza denez baita hori ere  
berpizten da  
heurena da hilketa  
zuretzat bizibidea  
zuhaitz izatea besterik ez eta zutoia  
edo gapirioa eta atea edo leihoa  
hori da zur landua  
etxegintzarako  
Catalunya

# German




# ika

## Gernika

Sabai eta kanpandegia  
aintzinako katedrala aintzinako herri  
batentzat  
leze amasabel  
gorengoa argituz  
besoa tente  
bihotza airera eta xoriengana zabalik  
harrizko zuhaitza eta hostoa  
deboren abotsa  
lur honetatik zeru garbira  
miru eraileak  
beren su hiltzailea utzi zuten zure  
magaletan  
baina oraindik zure sustraiak  
Euskal Herriko mila zuhaitzetan loratzen  
dira  
Gernika

Federico Gar



# cía Lorca

## Federico García Lorca

Ardo gorritan murgilduta bezala  
ardo epel batean  
erditzez jaioberritu edo hil ninduten  
ez dakit  
zerbait estrainatzen da nigan  
egunsentian edo arratsean aurkitzen naiz  
zerbait epelek inguratua  
nere amaren ditiburuko esnez  
zerbait epelek itotzen nau  
edo nere odol ixuria besterik ez da  
zerbait epel  
zerbait epel  
Federico izenez bataiatzen naute  
edo Abel izenez lurperatzen  
ez dakit  
sehaska kanta batek urrumatzen nau  
begiak hertsitzen zaizkit  
loguraz naiz

# Xosé

The image features a minimalist design with several overlapping, curved bands of varying shades of gray and white. The bands are positioned in the lower half of the frame, creating a sense of depth and movement. The top half of the image is mostly white, with the name 'Xosé' printed in a large, bold, sans-serif font. The overall aesthetic is clean and modern.



## Xosé Sesto

Ogi hutsez bizi ez zen gizona

Lan sendoa” eta “munduko bazterrak” horien modukoak ez ziren ohikoak izaten Galiziako Gobernuaren oharretan; beraz, askorentzat ertz ugariko gizonaren deskubrimendua izan zen. Xoséren anaia Manuel Sestok zioskunez, hura zela-eta norbaitek galde egiten zuelarik, Zertatik bizi da hori?, behingoan erantzun ohi zuela, Ba, jatetik, zertatik biziko da ba?

Xosé ez zen janari hutsez elikatzen, ostera. Argala eta meharra, gogoarentzat elikagaia etengabe bilatuz bizi izan zen. Adibide modura, laurogeiko hamarraldiaren azken aldera zilargintza ikastaroa hasi zuen, ez denbora eman alde baizik eta lan benetan ederrak sortzeko, berak hain maite ukan zuen maistraren eskutik –esmaltegile Caracasen. Lanok, berak hain maite zituen itsaso-oskolez osatuak sarritan, hurkoei opari egiteko izaten ziren.

Neuk ere ezagutzeko zoriona ukan nuen Xosé Sestok ukitzen zuen guztia artelan bihurtzeko dohaina zeukan, dohain guztiz berezkoa.

Galiziar Historiari buruzko Erret Akademiako urgazlea 1924az geroztik, 1928an Pontevedrako *Acción* aldizkariaren sortzaileetakoa izan zen. Hurrengo urtean *Xogos Frorais de Pontevedra* (Pontevedrako Lore Jokoak) delakoan saritu zuten.

Pontevedrako Diputazioak emandako bekari esker arteak ikusi zituen, eta liburuaren arteetako espezialitatea erdietsi. Ilustratzailea,





idazlea, hitzaurregilea, denean emankorra. 1931ean Partido Gallegista alderdiaren sorreran lagundu zuen. Urte berean *Logos* eta *Cristal* aldizkarietan parte hartu zuen. 1933an, berriz, Fermín Bouza Breyren *Nao Senlleira* lana ilustratu zuen.

Gerra lehertu aurreko urtean *Deus fratesque Gallaetiae* ermandadearen sorreran esku hartu zuen eta, horrez gainera, Alderdi Gallegistaren zatiketaren ostean *Direita galeguista de Pontevedra* izenekoak sortu zuen, Vicente Riscorekin batera, besteak beste.

Sarrerako hitzak egin zizkion Xerardo Álvarez Gallegok idatzitako *Vida, paixón e morte de Alexandre Bóveda* liburuari, sarrera horretan alferreko ezer ez dagoela esan behar delarik. Hain zuzen ere, Alexandre Bóvedaren azken orduen nondik norakoa laburtu zuen, horietan lekuko berezia izan baitzen gure Xosé Sestok, edo *Sestiñok*, Bóvedak berak iriztea gogoko zuen moduan.

Delako hitzaurrean Pepe Sestok esperantzari leihoa ireki nahi izan zion. Ez, hain zuzen ere, Bóvedarekikoan, haren amaieraren berri denok baitakigu. Galiziari igarri nahi izan zion amaiera hobe, eta Caracasen lagun izan zuen Celso Emilio Ferreirok “longa noite de pedra”-harrizko gau luzea- iritzi zion hartan sufritutakoei ere amaiera hobe.

### **Alexandre Bóveda: “heriotzari buruz emigrante”.**

Xosek 1936ko gerra *inzibilaren* definizioa eman zuen. “Apokalipsiaren lau zaldunek –falangistek, mairuek, faxistek eta nazisozialistek- Espainetako herrialde baketsu eta itxaropentsuen gainean eragin zuten kaindar sarraski itzela.”

Sestok berak zioskunez, bezperako arratsaldea Pontevedrako bazterrak hara eta hona ibiliz eman zuela, errugabeko baten bizia salbatu nahiz. Arrats hartantxe Sestori altua eman zioten. Asaltoko Guardia batek Bóvedaren amaiera berbera emango ziotela iragarri zion. “Gorri separatista hura, heu ere horixe haiz-eta, haren akabera berbera izango duk”.

Geroago, asaltoko beste guardia batek kalean gelditu zuen, galegoz esateko Alexandreren laguna zela eta emaztearekin batera hari kartzelan bisita egiten izana zela.

Guardiak, haurtzaroko bere lagun Alexandre fusilatu behar zuen taldekoa izateko hautaturik zutela aitortu zion Sistori. Honek gaixorik



egon zedila aholkatu ziolarik, guardiak, hori entzutean, gerra kontseilua egin ziezaioketela esan zion.

- Uko egingo diot, fusilatzen banaute, izan bedi zerbaitegatik.

- Seme-alabarik baduzu –galde egin omen zion Sestok.

- Bai, jauna.

- Zer lortuko duzu zeu ere hiltzen bazaituzte ere?

- Ze egin behar dut ba Sesto jauna?

- Katolikoa zara?

- Bai.

- Zer moduzko tiratzailea zara?

- Lehen mailakoetan sailkatuta nago.

- Ba, zuregan antzematen dudan kemen berezi hori, hori berori, erabil ezazu zerbitzuan; lasaitasunez, eutsi pultsuari, zuzendu bihotzera eta egizu bertara tiro, ez dezan sufritu. Eta zure mina Alexandrari eta Galiziari opa.

### **Tiroa bihotzaren erdian**

Sestok berak zioskunez, bizkor joan zen handik eta, hala, negarra aditu zuen bere bizkarrean. Inoiz berriro ikusi ez zuen gizon haren izena ere ez zekien. Jakin zuen, ostera, Alexandre Bóvedak bihotzaren erdia tiroa zeukala.

Alexandre Bóvedaren azken orduak ziegan eman zituzten lagunek. Biek aitormena hantxe eginik, Alexandrek Sestiñori beregana gerturatzeko eskatu zion, batera eta galegoz otoi egiteko.

Kausaren epaile Vila komandanteari eskea egin zion Alexandre Bóvedak, gorpua galego banderaz bil ziezaioten. Vilak inongo eragozpenik ez zela izango erantzun zion.

Sententziaren berri Bóvedari abuztuaren hamabostean eman bazioten ere, hiru egunez itxaroten egon behar izan zuen. Hamabosta Andre Mariaren eguna dute katolikoek, hots, heriotza emateko egun okerra. Egundak hamaseia ere, igandea zenez gero. Beraz, astelehenerako utzi zuten. Abuztuak hamazazpi zituen.

Hamazazpia, astelehena 1936ko abuztuan. Xosé Sesto arineketa doa Pontevedrako kasinora, galiziar banderaren ale baten bila. Ez zen okerreko lekua, hantxe erakutsi baitzen Pontevedran inoiz eskegitako halako lehenengoa.

Exekuzioaren lekura iritsi zenean Bóvedak gorpu zetzan. Hamazazpi minutu ziren igaroak elkarrekin otoi egiten izanak zirenetik.

Vila komandanteak uko egin zion, hara, Alexandre Bóvedaren gorpua Sestok ekarritako banderaz janzteari. “*Zure hitza, ohorea, non dira?*”, erantzun zion Sestok. Honek, arineketan berriro, koinata izango zuen Pepita Novasen etxera joanda, galiziar banderatxo bat paratzeko eskatu zuen.

Bandera gorderik, Alexandreren gorpuaen saihetsera itzuli zen. Oihaltxoak odolez bustia zen txalekoko poltsikoan sartu zion. Banderatxoak Alexandreren gorpua besarkatu zuela esan daiteke; Galiziaren izenean, eta galegoen, gizon eta emakumeen, izenean, itzulerarik gabeko emigrazio bidaia den heriotzaren ostean agur esanez besarkatu ere.

Askok sinistu zuten, zioen Sestok, Alexandre Bóveda betiko hila zela. Haren asasino eta lurperatzaileen okerra, orduan eta orain. Haren lagun eta anaia Castelaok *Galiza Martir* bilduman idatzirik utzi zigun legez esanda, “*lurperatu dituztenak ez dira hilotzak, haziak baino!*”.

Edo bestela, hor dira Antón Vilar Ponteren hitzak Lousada Diéguezen hiletan esandakoak. “*Eta hire garunetan ibiliko diren harrak zigorra izango ditek, argitasunezko har bilakatu beharra sufrutuz hain zuzen*”. Alexandreri ere egoki datozkion hitzak dira horiek.

Xosé Sesto

“*Galiziarri eta kulturari maitasun handia zien gizona*” izan zela esanez definitu zuen Xosé Sesto Lópezen izaera Fernández del Riegok.

Abokatua, idazlea, marrazkigilea, ilustratzailea, poeta eta batez ere galegista izan zen gizon hura, Pontevedran jaio zen, 1909an. Bizitzako azken 45 urteak Caracasen eman zituen, ostera.

Nolanahi ere, bere sortzaile ibilbidearen hasiera eta politikaren arloko ekintzaile jardunaren sustraiak sorterrian ukan zituen. Jardunotan bidaide ukan zituenen artean aipatu beharrekoa da Filgueira Valverde, 1954an Espainiako liburutik hoberenari saria eman zioten *Peregrinos a Compostela* liburua lankidetzan egin baitzuten. Aipatu beharreko beste bat Iglesias Vilarelle dugu.

Gazterik ekintzailea, hastapenetan Mocedades Galeguistas delakoan eta Partido Galeguista izenekoan gero, zuzenbide ikasketak egin zituen, Santiago de Compostelan hain zuzen, titulua

besapean Pontevedrara itzultzeko. Hortxe jardungo du Ogasuneko funtzionario zereginetan, halako batean lan hori berori Vigon hartu arte. Horrexerri esker ezagutu zuen Alexandre Bóveda, eta hartantxe biak elkarren adiskide bihurtu. Bataren eta bestearen galegismoa gorabehera –bera eskuindarragoa, hots, lagun ukan zuen Vicente Riscori atxikiagoa- Sestok harreman sakon bezain onak ukan zituen, hala Alexandre Bóvedarekin nola Castelaorekin ere. Horrexen lekuko dugu A Caeira delakoan Bóveda fusilatu aurreko orduan jazo zenaren narrazioa, arestian egina.



Ex-libris, Lluís Companys

## **Xosé Sesto, Castelao, Bóveda eta Pontevedrako Polifonia Abesbatza**

Xosék berak azaldu ohi zuenez, Rianxokoari buruzko lehenengo ezagutzak Pontevedrako San Frantzisko elizan egin zituen, artean zazpi edo zortzi urteko mutikoa zelarik. Hain zuzen ere Castelao, Estatistika funtzionario zereginetan, hirira etorri berritan.

Castelao marrazten lehenengo aldiz non-eta Eliza horrexetan ikusi zuen, koruan hain zuzen. Dioenez, ez zen haren sormenenezko lanetan izan, egun elizan dagoen arrosotoia zaharbertitzeko zirriborroa osatzen ziharduelarik baino. Esan, arrosotoiaren osakuntza Treuco hiriko Santo Domingo Arkeologi Museoan gordेरik ziren jatorrizko zatiak erabiliz egitekoa zela.

Xosé Pontevedrako Polifonia Abesbatzako kidea izan zen, kideak zirelarik, halaber, bere aita Xoán Sesto, anaiak Manolo eta Chano, Antón Losada Diéguez, Iglesias Vilarelle, eta, Xosék berak esan ohi zuen legez, “*zoritarrez eta zorionez*” Castelao eta Bóveda.

Korua non-eta San Frantzisko elizan. Castelaok berriztatu zuen arrosotoiaren azpian. Han datza “*itsasoko almirantea eta poeta*”



izan zena. Koruan, Sestok dioskunez, Castelao bera *“han behean lo izaten bazen ere biderkatu egiten zen hemen goian, koruan: bera ere Rianxokoa izan eta izenez Daniel Alfonso zeritzon Galiziarartasunaren Almirante Handiarengan, eta Alexandre zeritzon gazte tenor bakarlariaren ahots zoli eta alai biderkatu ere”*.

Komentu-eliza horretantxe bizi izan zen Luis María Fernández O.P., Xoséren jaioturtea izan zen 1909az geroztik 1960an hil zen arte bizi guztian, bizi ere. Xosék esandakoaren arabera, Castelaok Habanara joan zen Panchitoren ipuina madrildar harengandixe atera zuen.

Aita Luis denbora batez Lurralde Santuetara bidali zutelarik, galiziar frantziskotarrak baitzeuden Leku Santuen jagole, madrildarrak hantxe ezagutu bide sorterriarekiko mina *–morriña–*, bere semetzat hartu Pontevedrarekikoan, hain zuzen.

Ez zen harritzekoa. Aita Luis Pontevedrako komentuko organujole eta Kamera Orkestrako zuzendari jardun zuen.

Bóveda, bestalde, Polifonikoan tenor bakarlari jardun zuen, Aita Luisek *Cántigas de Pontevedra* sorta bati egin zizkion konponketak jo zirenean. García Lorcak Xoséri esana egia bada, poetaren aburuz kantigok berak Espainian ezagutzen zituen artean ederren zeritzen.

Daniel, Castelao, tai gabe lanean. Arrosetoian nahiz *fonte da Ferraria* delakoaren zaharbertitzean, alegia, “triada” eta “boa vila” hartakoxean. Edo Polifonikoaren ikurra taxutzen. Edo hartantxe kantuan. Edo bestela gero Xosék brotxa lodiaz margoz betetzen zituen marrazkiak sortzen. Castelao, lanean.

Xosék kontatu ohi zituenetara berriro joz, gazteak, halako batean, arrosetoiko irudietako batek lau hatz baino ez zuela ohartarazi zion Castelaori. Ohartarazpenari barre egiten ziolarik hurrengo irudiren bati sei hatz ipiniko zizkiola agindu omen zion, aldea berdintzearren.

*“Eta hantxe ni, Aita Luisekin, Castelaorekin, Bóvedarekin, beti parez pare, askotariko lan eta zereginetan. Eta hantxe adiskidetasuna. Balio handikoena, adiskidetasuna. Adiskidetasunaz polito zekien Aita Luisek. Gutxik beste. Heriotzarainoko adiskidetasunaz. Castelaorekin, Bóvedarekin. Heriotzaraino, esan ohi da. Eta halaxe izan zen”*.

Eta Xosé, giza-munstro bi ziren Daniel eta Alexandre horiez gainera-gizatiarregi zirelako hain zuzen giza-munstro-, hor da Aita Luis, Bóvedari beronek azken hatsa ematekotan den arte kontsolamendu emango ziona, lagun modura, harako beste hartan zorionak eman



zizkionenean bezala. *Prende, salgueiriño, prende* hain ondo kantatu izana eskertu zion laguna izaten segitzen zuelarik, alegia.

Bada, aita Luisek Castelaorekin ere adiskidetasun sendoa ukan zuen, nahiz eta Danielekin pittin bat deseroso sentitu. Hori, denbora hartan san Ero eta aita Navarrete zirela-eta eduki zuten eztabaidaren kariaz izan zen. Dirudenez, “haserrearen” zergatia Castelaok –beregana ohikoa zen moduan- san Eroren mistizismo lirikoa aita Navarreterenari alderatu izana izan zen.

Galziarraren eta gaztelarraren arteko alde ontologikoa ilustratzeko kariaz jo ohi zuen Castelaok horiek elkarri alderatzera.

Legendarekin bat, san Ero Armenteira delakoan egona zen, hirurehun urtez *passarinha* bakar bati adi entzunez. Halaxe dio poeta Errege CIII kantikak.

Horrekin aurrez aurre, horra aita Navarreteren mistikotasun lehor eta motza. Egun batez, sermoia ematen ari zelarik, artatxoriek eragozpen egiten ziotela eta isiltzeko agindu omen zien. Isildu ziren txoriok (Xoséren esanetan, Castelaok honetaz guztiaz meditazio modura jarduten zuen), baina harrez gero ez zen inoiz berriro San Frantzisko komentuan haien kanturik aditu.

Castelaok alderaketa horretara behin eta berriro jo ohi zuen. Habanan aipatu zuen, 1939an. Baita *Sempre en Galiza –Beti Galizian-* lanean ere. Eta Xosé Sestok berak esanda dakigunez, 1931ko Galiziar Aberriaren Eguneke mitinean, Vigoko Borbón Antzokian hain zuzen, planteamendu hori berori egin zuen. Gogorarazi behar da mitinean, Castelaok gainera, Otero Pedrayo, Vicente Risco, Álvaro das Casas, Paz Andrade, Álvarez Gallego, Fernández Mato, Filgueira Valverde, Carvalho Calero eta Alexandre Bóveda izan zirela.

Hala bada, diosku Xosék, aita Luisek ez zion zuzen irizten Castelaoren aburu horri. Tematu egiten zen horretan Castelaok, ostera. Eta aita Luisek oker zeritzon alderaketari, zeren eta, zioen berak, kontua ez baitzen bera gaztelarra zela, ezta ere legendak izatea; Asisko Frantzisko bera, *Poverello*, txorien etsai handia izan zen, Cannaroko gazteluan sermoia ematen utzi ez ziotela eta. Haatik, etsaigoa bizi laburrekoa izan zen, zeren eta hartan isiltzeko agindu ostean, txoriei sermoi berezia egin zien Bevagnora bidean.

Izan ere, aita Luis, San Frantzisko eta Navarrete bezala, txoriei isilik egoteko agintzearen aldekoa zen, ez kantuagatik beragatik, Jainkoaren



Na festa do San Benitiño de Lérez, están Colmeiro, Maiztegui e Xosé Sesto.

hitza aditzea eragozten omen zutelako baino. Eta aita Luisek Castelaorenganako bizi duen egonezin hark jakintsu askoren jakintzaren sakontasuna zuen; *“itsaso beteko ezagutzak dira zabaleraz, bai, baina milimetro bat sakon den itsaso bateko ezagutzak dira”*. Ez zuen sustrai sakonik egonezinak, ez, Castelao hil zelarik -Buenos Airesen-gertatu zena lekuko. Hona, Xosék kontatua.

*“Castelaoren heriotzaren berria iritsi zelarik ez zen ordu askorik igaro Pontevedran bertan haren arimaren aldeko meza atondu barik. Eta zen edozein elizatan egitea erabaki, San Frantzisko*

*elizan baino. Eta meza ematekoa nor eta aita Luis, gainera. Probintziako gobernadoreak, hura zer izan zitekeen susmatu rik, aita Luis bere bulegora deitu zuen. Ez zela mezarik emango, ezta inondik ere, gorri separatista baten arimaren alde, kutsu politikoa zekarren ekitaldi baten barruan gainera; ezetz eta ezetz. Aita Luisek apal eta frantziskotar erantzun omen zion.*

*-Begira, gobenadore jauna. Castelao gorria ote zen, zin egin diezaioket berorri esku hauetatik askotan hartu zuela ogi sakratua. Separatista, berriz? Ni neu madrildarra nau berorrek, eta, hara, haren pentsaera berekoa naiz. Eta orain nitaz hitz egingo diot, jauna: hartuko nau berorrek preso, eta kartzelan sartu, bestela bihar, libre banago, aita Santuak berak ere ez dit eragotziko meza ematea kristau zen Daniel Alfonso Rodríguez Castelao izeneko baten alde. Eta jakin beza, gobernadore jauna, kristau hori nire laguna zela, gainera.”*



Zazpi urte zituen Xosék Castelao Pontevedrara iritsi zenean, 1906an. Hartan Xoséren aita, Xoán, *Aires da Terra* abesbatzako kidea zen. Abesbatza Perfecto Feixoo botikariak sortua eta zuzendua zen. Castelao abesbatzan sartu zen, eta han ezagutu zuten elkar aitak, Xosék eta hirurek.

Xosék Castelao gizon oso modura gogoratu ohi zuen. Zentzu guztietan osoa. Txiki-txikitatik marrazketarako dohaina erakutsi zuen Xosék bere lehenengo erakusketa Castelaoren eskutik paratu zuen. *El Globoko* erakusleihoan izan zen, mutikoak ozta-ozta 11 urte zituelarik.

Handik laburrera Castelaok European zehar bidaiatu zuen, beka bati esker. Itzuleran, 12 urte bete berri zen gazteari oparia ekarri zion; *Winsor&Newton* akuarelak eta *Kohinoor* txekiar arkatzak.

Daniel, 1921eko udazken hartan urrundik etorria, mutikoari oparia zekarkiola agertu zen Perfectoren botikan, eta hantxe erakutsi. Hirurogei urte igarota, Londresen Xosé haien akuarela berdinak erostera joan zen. Zahar, bihotzean ondo gordea zuen Castelaorenganako esker ona.

Ez zen Castelaoren opari “artistiko” bakarra izan. Urte batzuk geroago, linolio-grabazioaren antzea irakatsi ostean, bere margo-kutxa oparitu zion. Kutxa hori Xosék urte batzuk geroago Pontevedrako Museoari egin zion opari. Museo horrek, esan beharrekoa da hau ere, Castelao izan zuen sortzen lagundu zutenen artean. Egun, kutxa, gainean asto baten irudi ederra duena, Museoan ikusi ahal da.

Denboraren igaroan Castelao Xoséren irakasle bilakatu zen, batxilergoan. Castelao irakasle urgazle ziharduen, eta Xosé marrazketa geometrikoari buruzko haren eskoletara joan ohi zen.

Pontevedrako Polifonikoaren lehenengo kontzertu bidaiaren ostean Madrileko Norteko Geltokian Galiziara itzultzekotan zirelarik, han ziren Xosé, aita, anaia Chano eta Manolo, Castelao, Bóveda eta, besteak beste, Blando Porto zuzendaria. Hor dator tren, eta leihoan emakumezko bat, ozen aldarri eginez: “*Ea ba, bizkor, galegoren bat, nire maletak eramateko!*”

Castelao arineketan joan zen, bagoira... “*Anderea, galegoa nauzu; ea maleta horiek!*”

## **Xosé Sesto, kazetari**

Artean hamazortzi urte ez zuela ekin zion kazetaritzari Xosé Sestok, *Acción* aldizkarian hain zuzen. Izatez katolikoa zen Pontevedrako kazeta hartan A. Turuxo ezizenaz sinaturiko ipuinak argitaratu zituen. Denboraren buruan beste kazeta batzuen sorreran parte hartu zuen, hala nola *Spes* eta *Cristal* izenekoetan.

Horiek horrela, Xosé Sestoren jardueran nagusia, hala kazetaritzan nola artegintzan ere, *Faro de Vigo* izenekoan gauzatu zen. Lehenik, *El barrio y la calle* izeneko artikuluekin eta marrazki erantsiarekin, eta pittin bat geroago galiziar erretrauei buruzko lanekin.

Venezuelan eta Venezuelatik emigrazioko agerkari galiziar askotan esku hartu zuen, hala nola, Buenos Aireseko Centro Gallegoko *Galicia* izenekoan, Argentinako Hijos del Partido de Corcubión delakoaren *Alborada* izenekoan, Venezuelako Hermandad Gallegak argitaratzen zuen *Irmandade* zeritzon hartan, edo Venezuelako *Escolman*.

*Voz, La Razón, Crónica de Caracas, El Nacional*, aldizkari zein egunkari batzuk, haren lanak argitaratu ohi zituztenetakoak.

Era berean, Macgregor hark zuzenduriko *Momento* aldizkarian lankidetzan jardun ohi zuen, beste galiziar batzuk ere hantxe zirelarik. Adibidez, Antonio Muñño Louredo, *El Diablo Cojuelo* ezizenaz ezagunagoa, edo Julio Formosa, Sestori esker oneko orrialdeak eskaini zizkiona bera, lagunak Venezuelako nazio ondarea berreskuratzea eginiko lan estimagarria zela eta eskaini ere, Sestoren *1 carta e 100 cousas para abogados –Abokatuentzako gutun bat eta ehun kontu-* liburuari egin zion hitzaurrea ahaztu gabe. Liburuak hiru edizio ezagutu dituela eta Santanak ilustratu zuela esan behar da.

## **Santiagoko liburua**

*El libro de Santiago* 1948an argitaratu zen, Madrileko Editora Nacional delakoaren eskutik, urte hura Konpostelar Urte Santua zela eta. Berririo 1989an A Coruñaako Diputazioak argitaratua, liburuko hitzak Filgueira Valverderenak eta marrazkiak Xosé Sestorenak dira.

Egileen euren iritziz, irudi edo estanpez osatua den liburu horrek ez du inondik ere estilo batasunik, gaia zein den adierazpidea horrexerri egokitzeke asmoa baino.

Galizia “Santiagoren lurraldea” edo Finisterreko Apostoluaren Eginena den aldetik dakarte gogora. Liburua jakuear ikurren gaineko tratatu ttipia da, azken batean.

### **Xosé Sesto, paremiologo**

Gure biografiatuak Venezuelako eguneroko eta aldizkako agerkari zenbaitetan lan egin zuen, horietan errefauean ikertzen segituz, baina Venezuelakoetan.

Galiziar erretrauen arloari eman zion denboraren zatirik handiena, hala eta ere. Aipagarria da *A muller no refraneiro –Emakumezkoa erretrauetan-*, Caracasen 1976an argitaratua, titulua argitzen duenarekin bat datorrena; Galiziako emakumezkoari buruzko 1.048 erretrauen bilduma da.

Aipatu azken lan horretan Sestok berak zehazten du emakumearen arlo mugatu duela bere burua, horren ostean *O amor e a morte no refraneiro galego –Maitasuna eta heriotza galiziar erretrauetan-* izeneko argitaratzeko asmotan baitzebilan.

Hona hemen *A muller e o refraneiro* liburuan dioskuna:

“*Denean ala zatiren batean igarri dudanentz, ez dakit ziur. Ziur esan diezazukedan bakarra, irakurle eta adiskide hori, egin dudana gogoz eta arduraz egin dudala da. Batik bat emakumeak direlako aztergaia. Gai arantzatsua, delikatua, zeren eta ‘emaztekoa eta ohorea beira bezalakoak dira, behin apurtuz gero!’”*

*Barkatu ahalko didate irakurlearen begi kastuek behin edo behin berba edo esamolde ‘batere dotore’ ez denik dakarren erretrauen batekin topo egiten badute. Herriak dioena bada, ezinbestez aditu beharrekoa da, horra. Eta paremiologoak horiek bildu baditu, egin ere egin behar duen moduan, irakurri egin beharko, ezta? Hortxe daude.”*

### **Xosé Sesto Venezuelan**

Venezuelara 1955ean iritsi zen, bere anaia Manolok ekarria. Galizian eduki zuen zaharbertitzeari buruzko lantegiak hartutako eskarmentuari esker Arte Plastikoen irakaskuntzan sartu zen, Cristóbal Rojas Eskolan, Zapata venezuelar artista ezagunak utzitako lekuan. Venezuelara iritsi berri, *Estampas Navideñas –Gabonetako Irudiak-* izeneko sariketan lehenengo saria eskuratu zuen. Urte horrextakoa du lehenengo erakustaldia, Caracaseko Ateneoan egin bera. 1957an, berriz, Radio



Caracas Televisión izenekoan bibliografiaren kulturaz eta liburuen artegintzaz ikastaroa eman zuen. Hurrengo urtean, 1958ko urtarrilaren 23an hain zuzen, demokrazia hasi zen Venezuelan, Marcos Pérez Jiménez en erregimena orduantxe kendu baitzuten. Urte horretan sortu zuen tailerra, *Finisterre* izenkoa. Venezuelako Gobernuak lantegi horretan paraturiko liburuak eta inkunableak oparitu ohi zizkien, hala nazioko goi mailako agintariei nola atzerrikoei ere.

Ekinean beti, 1961an eta Biblioteka Nazionalean, liburuari buruzko artegintzez eta medikuntzez erakusketa paratu zuen. Gainera, Venezuelako Irrati Nazionalean liburuari buruzko saioa egiten zuen. Ondorioz, Hezkuntza Ministerioak Cristóbal Rojas Arte Plastikiei buruzko Eskolan Katedra eman zion, liburuen artegintzen eta azaleztatzearen arloan, hain zuzen. Ildo horretan, Venezuelako estatu-kanala zen Venezolana de Televisión *Liburua eta liburuaren mundua* izeneko ikastaroa eman zuen.

Cristóbal Rojas Eskolan ez ezik San Juango Lanbide Eskolan ere irakatsi zuen, jubilatutako ere horretan jubilatutako zelarik, 1971n.

Hirurogeita hamar urte zituelarik, hots, jubilatutako baino bi lehenago, Caracaseko Alkatezaren menpeko Historia eta Arte Ondarearen Saileko zaharberritze laborategiko zuzendari izendatu zuten.

Venezuelan erdietsi zituen lorpenen artean aipagarrienetakoa, oster, *Apirilaren 19ko Independentziaren Agiria* argitaratzea izan zen.

Ondorioz, 1961ean Venezuelako kazetek Xosék Apirilaren 19ko Agiriari eginiko berritze lanari buruzko erreportajea zabala argitaratu zuten.

Lana, Independentziaren Agiria sinatu zenetik, 1811an, 150 urte bete zirenean egin zen. Caracaseko Udal Kontseilua Txit Agurgarriari orduantxe zitzaion etorri berri liburu guztiz berezia, aberriaren historiako pasarte gogoangarrien ispilu diren dokumentuekin. Liburu hori Hitlerren aurka Frantziar Erresistentziaren Indarrekin gerran jardun zuen ofizial ohi batek eta aspaldi zenik Venezuelan bizi zen Historiari buruzko Galiziar Akademiako kide batek eman zuten.

Horrekin lan eginez Sestok bostehun aleko edizio egin zuen, aleotako berrogeita hamar gure gizonak berak eskuz azaleztatutako eta zenbatuak izanik. Aleok luxu betekoak dira, larru gorritz jantziak eta letik 50 zenbaturik erromatar zenbakiez.

Liburuari bizi emateko lana ez zen erraza izan. Are zailagoa izan zen Sestoren iritziaren arabeko edizioa egitea.



Zereginean lankide, Sestok, Alfredo Brandler argitaratzailea ukan zuen, baita Caracas Hiriaren Kronikari Enrique Bernardo Núñez ere. Emaria, urteurrenari itzal berezia eman zion delako liburua dugu.

Urtebete eman zuen Sestok zereginean, ekin eta ekin, azkenean Venezuelan “artisautzako maisu lana” iritzi zaion horretaraino iristeko.

Lehen-lehenengo helburua jatorrizkoaren kopia doi-doia sortzea izan zen, alegia, bere sortzezko kolorea eman ez eta transkripzio zehatza eginez. Hori guzti hori Leopoldo Méndez paleografoak erdietsi zuen.

Bigarren helburua, berriz, Kontseilu Gorenaren dokumentu guztiak ez ezik Caracaseko Kazetan 1810ko apirilaren 27tik abenduaren 7ra bitartean argitaratu zirenak ere egungo publikoaren irispidean ipintzea izan zen.

Akigarriak izan ziren artxiboetako bilaketa lanak, eta ekinkorra ostera Sesto bere biltzaile zereginean. Gero, eta ordura arteko ahaleginak ahalegin, garaiko koadrorik ospetsuenen kopiak sortu beharra zegoen.

Koadrootako batzuk eskuragarri bazeuden ere, beste asko bide meharretan sartzea eskatzen zuten. Izan ere, azkenok edizioaren bidez ohoratu nahi ziren aberriaren sortzaileetako ondoengoen eskuetan ziren.

Liburuari, antigoalekokerietan ibili gabe ere, garaiko kutsu jatorria eman gura zitzaion. Sestok berak zioskunez, egungo irakurlearengan iraganekoaren argi-itzalak berpiztuko zituen liburua behar zuen izan, eta hala eta guztiz ere irakurtzen erraza. Halaxe hautatu ziren “biboteak”, orrialde-oinetakoak eta tinbre bereziak. Horietako bat Lino de Clementek soldadu bati emateko erabili dokumentutik hartu zen. Azkenik, Bodoni moldera jo zen liburua inprimatzeko, berori baita klasikotasun airea gorderik argia eta garbia benetan dena. Inpresioa makinen ohiko abiaduraren herenean egin zen, eta orriz orri hirutan zuzendurik inprentan beste hainbestetan inprimatu. Behin plegu oso bat baztertu zen, letra bakar batek akatsa zeukala eta.

Paperari dagokionez, aldiz, *Victorian Strathmore* deritzona erabili zen, alegia, ur markaduna eta bizartsua den horixe.

Koloretako laminei dagokienez, amaitzeko, kontaezineko frogak egin ostean onartu ziren onartu zirenak. Hitz batean, azkenean munduan beste halakoen aldean ezereen ments ez den liburua sortu zuten.

D.R.I.L. erakundeko Soutomaior komandanteak idatziriko *Yo robé el Santamaría –Neuk ostu nuen Santamaría ontzia*, Caracas, Monte

Avila, 1972- liburuari hitzaurrea egin zion. Honen harira komeni da esatea liburuan kontatzen dena ez dela, -komandantearen hitzetan-pirata ekintza, humanitatearen historian bahitu den lehenengo ontziaren kasua baino. Politikoa, beraz.

Caracasen bere kargu ukan zuen Errepublikako Kongresuaren Biblioteka. Horrekin batera, Biblioteka Nazionalean lan egin zuen, harik eta 1973an erretiroa hartu zuen arte. Bitartean Biblioteka horretako jagole ere izendatu zuten.

Sestoren bizitzako azken urteen isla A Coruñaiko Arkeologi Museoan eta San Anton Gazteluan diren arkupetan diren hormako bietan, alegia, *Homenaxe à Virxe do Rosario* izenekoan, zeinetan Andre Mariren aurpegia bere emazte Charifño bihotzkoarena den, eta *Apoloxía de san Antón* izenekoan, zeinetan bere buruaren erretratua egin zuen, seme-alabak ere tartean sartuta.

Xosé Sestori 1995an Castelao Domina eman zitzaion, bera bezalaxe Venezuelan bizi izandakoa zen Ura Vázquez Iglesias olerkariari eman zitzaion aldi berean.

“Castelao Domina eman diogu Xosé Sestori –zioen Galiziako Gobernuaren agiriak-, honetara gizonak galiziar kulturaren alde munduko bazterretan, hala nola Vigon, Caracasen eta Buenos Airesen, egindako lan sendoa eskertu nahirik.”

Galiziako Gobernuaren oharretan ez zen ohikoa izaten, ez, Sestori buruzko horretan aipaturik diren lan sendoarena eta munduko bazterrena horien modukorik; argi dago, beraz, askorentzat ertz ugariko gizonaren deskubrimendua izan zela Sestoren lana ezagutzea.

Galizian izan zen azken aldian domina batzera etorri zenekoa izan zen, hain zuzen. Huraxe izan zen, halaber, Galiziar Erret Akademiako presidente Francisco Fernández del Riego jaunarekin egon zen azkena.

Del Riegok Xosé zela-eta esandakoa esaldi batean laburtutik, “*Jakingura handiko gizona, marrazkilaria ona, galegoz lan egiteari izterdirik ukatu ez ziona, galiziar kulturari maitasun handia ziona.*”

Noiztik-eta *Mocedades Galeguistas* haien garaitik ezagutzen zuen Del Riegok Xosé Sesto. Honek Venezuelan egin zuen aldian ez zuten elkarrekiko harremana eten, ostera. Bestela, aldi horretan Celso Emilio Ferreiroekin ukan zuen harreman estuena.

Xoséren bizitza Pontevedrari, Galiziarri, Bóvedari eta Castelaori sendo loturik igaro zen.



Bada, A NOSA TERRA aldizkariari eginiko ohar autobiografikoetan -“oharrok ene arimaren barne-muinetan bizi direnak dira”, dio- azken hitzak Castelaori buruzkoak dira. Xoséren aburuz “Castelao... Castelao zen”, hots, karismadun gizona, mitoa izan gabe. Bere diputatu hilerokotik erdia, bostehun pezeta hain zuzen, Partido Galegistaren kutxan sartu ohi zuena.

Amaitzeko, 36ko gudatea izan zen tragediaren ostean hainbeste anaiaren heriotzaren berri izan zuelarik idatzi zuena gogorarazi behar da. “...galegista burkide edota adiskide baino beste zerbait handiago ginen, anaiak ginen. Eta erbestea ginen. Eta heriotza nire Pontevedra! horretatik urrun. Hiltzeko modu samingarría. Orain Donejakuen da Daniel Alfonso anaia. Semearen eta Andramariren albotik urrun. Hala eta ere ondo dakigu Galizia osoa haren bular barruko kutxan datzala. Galego zintzoen bularrean datzan legez”.

Xosé Sestok, artistak, liburu-paratzaile bakan eta bikainak, Galizia hain maite zuen gizon biziak, berak ere badu lekua galego zintzo eta eskuzabal guztien bihotzetan. Bere apaltasunak holakorik onartzea eragotziko balio ere, egia da.

### **Oharrak:**

Xosé Sesto López en ahozko testigantza, Caracasen, Venezuelan.

Manuel Sestoren ahozko testigantza, Caracasen, Venezuelan.

Farruco Sesto Novásen ahozko testigantza, Caracasen, Venezuelan.

Paulino Núñez en ahozko testigantza, Caracasen, Venezuelan.

*Castelao e Bóveda...Irmáns* ‘Cadernos A Nosa Terra’ delakoan.

Felipe Senén, A Coruñaako Probintzi Diputazioaren museologoaren biografia-oharra.

Comandante Sotomayor: *Yo robé el Santamaría*, Monte Ávila argitaletxea, Caracas 1972.

Álvarez Gallego, Xerardo: *Vida, paixón e morte de Alexandre Bóveda*, Nós argitaletxea, Buenos Aires, 1972.

Sesto, Xosé: *A lúa está ehí*, colección Poesía a man. Caracas, 1972.

Sesto, Xosé: *1 carta e 100 cousas para abogados*, colección Mayer García, Nº 1, Caracas, 1974.

Sesto, Xosé; Filgueira Valverde, Xosé: *El libro de Santiago*, Diputación Provincial de A Coruña, 1989.

Sesto, Xosé: *Pranto a Chariño*, Vigo, 1975.

Sesto, Xosé: *Refraneiro da muller*; edicións Castrelos, Vigo, 1976.

